



Badator Ordiziako azoka festa

Errebelatu itzazu oporretako argazkiak modu onean!

3x2

2 errebelatuz
3.ena dohain



Argazki

edo

anplazio bat (20 x 25) dohain

Domingo Unanue Plaza, 1

☎ 88 93 25

ORDIZIA



VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN



**ESKORIATZAKO
MAGISTERIO ESKOLA**

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Espezialitateak

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA
Tfnoa.: 943 / 71 41 57
20540 ESKORIATZA



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bat az beste

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaneko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaia eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.



**Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzardea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Andoitz Telleria,
Xabier Urteaga, Zorion Intxaus-
ti, Edurne Albizu, Idurre Eskisa-
bel, Izaskun Salazar, Gabino
Murua, Koldo Urrestarazu eta
Urko Irastorza.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Eugenio Irastorza preso jipoitua

Abuztuaren 25ean Jaen Ilko kartzelan dagoen Eugenio Irastorza ordiziarra, 15 bat funtzionarioek jipoitu zute-
la salatu dute bere senideek. "Eguneroko tentsioaz gain, aurten jaso duen 2. eraso-
a izan da Eujeniorena. Marka nabariak ditu lepotik gerri-
raino, eta mina saihesten eta orkatiletan. Isolamendura eramaterakoan bortizki bi-
luztu eta berriro jo zuten. Egun horretan bere emazte-
arekin zuen *Vis a vis-a* gal-
du zuen. Urtarriletik 6 pre-
so jipoitu dituzte eta 8 pre-
so sozial hil dira. Extermi-
nioko kartzela da Jaen-
goa", Senideak elkarteak
adierazi zuten.

Jokin Zubeldia eta Joxe
Mari Lizarraga ordiziarrek
ere Jaen Ilko kartzelan dau-
de. Senideak elkarteak, "bai
Eugenio, bai Jokin eta Joxe
Mari bai beste guztiak ere
Euskal Herrira ekartzeko

exijitzen dugu". Jaen-
dauden euskal presoek mu-
gagabeko gose grebari ekin
zieten abuztuaren 26an, ji-
poi eta mehatxuak amai
daitezen eskatzeko.

Zenbait komunikabide-
tan presoak funtzionarioak
jipoitu zituela zabaldu bada
ere, "Eugenio defenditu bes-
terik" ez zela egin argitu zu-
ten.

Azken jipoi hau gertatu
aurretik, Jaen II kartzelan
zegoen tentsio egoeraren
berri eman omen zioten
Juanbi Erauski alkateari
"Baina ezertxo ere ez zute-
la egin garbi dago. Erasoa
gertatu eta plenoa eskatu
genion alkateari baina mo-
zioak baino, zuzenean Jai-
me Mayor Orejarekin hitz
egitea nahiago zuela eran-
tzun zigun".

Azken informazioen ara-
bera, Eugenio Irastorza Jaen
Ilko kartzelatik Almeriako-
ra eramana izan da.

BOTA BERTSOA



Ikerne Urrestarazu

**Bakailua platerean
edo bozgorailuan?**

Doinua: zortziko handiko
edozein doinu

Nik bakailua txit atsegin dut
batez ere pil-pilean
are gehiago nire amonak
jarri ohi duen antzean
orain gustoko da dantzaleku
eta gazteen artean
modan jarri den "musika" mota
bakailuan izenean.

Bakailu mota berri hau neri
ez zait batere gustatzen
ta gero 'bakailuaren rutak'
herri ugaritan sortzen
dantzalekutik dantzalekura
gazte ugari dantzatzen
hobe bakailua plateretik
ez bada inora mugitzen.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Gaurko gizartea eta komunismoa

Komunismoa utopia bilakatu da, eta kapitalismoaren errealitate bortitzak mugitzen gaitu gaur egun pertsonok. Kapitalismoak, gutxi batzuen diru-iturria den multinazionalen zerbitzura dagoen sistema ekonomikoak, partidu politiko gehien babesa dauka. Muntaiak lotsagarri bat mundu hau, bertako biztanleen hiru laurdenaren gosearen gain eraikiriko antzeslana.

Onar dezagun behingoz zer garen, ikus ditzagun gure buruak txikiak, mespretxagarriak, kapitalistak... Konturatu gaitzen dirua lortzearen hasten diren gerretaz, eta arrazoi berberetatik amaitzen direnetaz, eta ez direnetaz. Herri pobreetako diktadura militarren sostengu diren multinazionalak "bizitzaren sentsazioa" lemapean aurkezten dizkiguten produktuen historiaz konturatu gaitzen.

Dena pribatizatuko dute, eta "mundu aurreratuko" pertsonoi ez zaigu axola izango arima beltza edukitzea azala zuria mantentzen badugu. Ez, ez zaigu axola izango inola, gure etxea, gure kotxea, gure lantxoa, gure lagunak, eta gure partidu politikoaren babesa badugu, eta besteak baino gorago igotzea lortzen badugu konpetentziaren gudan.

Nola demontre izan dai-

teke pertsona bat komunista gaurko gizarte honetan? Ez dakit, ez dut uste posible denik, baina onar dezagun, lehenik, miserable batzu garel. Herri pobreenetako jendea da konprometituena, jakin dezagun hori miresten. Ikas dezagun benetan miresgarri dena miresten, saldu nahi diguten gainazal zuriaren orde.

Zalantza egin izan dut hau idaztean, positiboa izan eta esperantza edukitzeko arrazoi gutxi ikusten baitut inguruan. Eta badakit errazena inpotentzia sentitzea dela, arazoei buruz luze eta sakon hitz egitea, merkatu librearen ekonomia elikatzen dugun aldi berean, kontsumismoa kritikatzeko.

Eta gero, zer? Ezin dut nahi bezala amaitu idatzi hau. Ze errezeta miresgarri bat eduki nahiko bainuke, baina ez dut mirarietan sinesten. Hala ere, izan dezagula beti buruan, munduaren hiru laurdenaren goseari esker edaten dugula aste bukaeretan Coca-cola. Zenbat pertsona ari den hiltzen, orain, gu sentsazioz gainezka bizi izan gaitzen... Zer mailalara jaisten gaituen horrela bizitzeak, pertsona gisa non geratzen garen.

Izaskun Egiguren (Ataun)

Cubarekin bat

Helms Burton Legeak dakartzan ondorioen berri entzuten hasi besterik egin ez garenean, eta mundu guztian zehar salaketak gehitzen ari direnean, LAB-en elkartasuna adierazteko beharra dugula ulertzen dugu, amerikar inperialismoaren eskutik egunez egun, eta urtez urte herri kubatarak jasaten dituen erasoak eta eskuhartzeak salatzea nahai dugu. Elkartasunak ematen duen sentsibilitateik abiatuaz, Euskal Herriko langileok berriro ere, Cubako iraultza sozialistari gure elkartasuna adierazteko beharra sentitzen dugu. Bere askatasunaren alde borrokan ari den herriari, bere garapen ekonomiko, sozial, iraultzaile eta sozialistaren alde borrokan ari den herriari. Ahantzi ezin dugularik Ameriketako bere anaiekiko daraman borroka internazionalista, eta orokorrean borrokan ari diren munduko herri guztiekiko.


Ez litzateke soilik Helms Burton Legearen salaketa bat izango, baizik eta gobernu "demokratikoa" ere. Hauek alde batetik Legea saltzen bait dute, eta bestetik kubatar gobernuak kritikatzen dute "demokrazi" gehiago eskatuaz. Cuban inbertitzen duten enpresekiko yankee-en eskuhartzeak salatzen dituzte, baina ez dute pausu seriorik ematen blokeoarekin amaitzeko, Cubak duen arerio nagusia hau izanik. Guzti hau

noski, "demokrazia" eta merkataritza librearen mesedetan. Beti bere interes ekonomikoen arabera mugitzen direlarik.

36 urte blokeaturik, 36 urte erronkan, kanpoko eskuhartzeak, herriaren eten-gabeko borroka. Guzti honek Cuba, herri maitatua eta errespetatua izatea bilakatu du mundu justuago batengatik borrokan ari den jendearentzat, non herri guztiek bere etorkizuna erabakitzeko askatasuna izango duten, askatasunean oinarrituriko gizarte baten alde borrokan ari direnentzat hain zuzen ere. Beraz herri maitatua bere askatasunaren alde borrokan ari den Euskal Herriarengatik. Borrokan ari diren herri guztiekiko eta batez ere Cubarekiko, nork askotan adierazi zuen gurekiko elkartasuna, solidariora den Euskal Herri batengatik.

Guzti honegatik eta beste gauza guztiengatik, kalera-tzen dugu elkartasunezko eta salaketa kanpaina hau. Honela, nahiz modu sinbolikoan besterik ez izan, blokeo bortitz hau hautsiaz. Kanpaina honekin bat egiten dugun era berean, bota dezagun irrintzi solidario eta internazionalista bat, inperialismoari eta neoliberalismoari intsumitua den irrintzi bat. Defenda dezagun herri guztien askatasun eskubidea!

LAB



ondoeta

**ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxa: 88 0872 ITSASONDO

TXANDAKA

Erantzunak?

Oraintxe egun batzuk izan nuen Elgetako Jon Markaiderekin solasean aritzeko parada. Ez da nolanahiko gizona bera: Astronomia eta Astrofisikako katedraduna Valentziako Unibertsitatean, doktoradutza EEBBtan egina, NASA-ko aholkulari izana, Europako Agentzia Espazialeko zientzielari taldeko kidea...

Gauza harrigarriak esan zizkidan: Eguzki Sistematik kanpo hiru planeta aurkitu dituztela jadanik, eta teknologiak aurrera egin ahala askoz ere gehiago topatuko dituztela. Seguruenera, planeta horietako batzuk Lurraren oso antzekoak izango direla eta bizitza gordeko dutela. Hau da, ez gaudela bakarrik unibertsoan, gurea bezalako 'kreazio' ugari daudela, eta gu, horietako bat besterik ez garela. Txiki-txikia.

Eta esan zidan ere, aurkikuntza horiek guztiak aurrera-pausu direla pertsonon galdera existentzialei erantzuteko: zer garen, nondik gatozen eta nora goazen. Finean, guztiok noizbait sentitu dugun larritasun ikaragarriaren lasaigarri direla.

Aitzitik, kontrakoa gertatu zait niri: larritu egin naiz. Izan ere, kasualitate hutsaren emaitza bagara, zergatik gara hain konplexuak eta hainbeste larritzen gaituzten galdera horiek egiteko gai?

Idurre Eskisabel Larrañaga



Herri haundia ala txikia nahiago duzu bizitzeko?




Gerizpe Iraola
16 urte, ikaslea
zaldibitarra

Herri txikia. Guztiok ezagutzen gara, elkartzeko, koadrilak egiteko errazagoa da. Zerbitzu gutxiago izaten da baina herri handiago bat izanez gero, ondo moldatzen da.

Aitzol Jauregi
18 urte, ikaslea
zaldibitarra

Herri txiki xamar bat, Zaldibia bezala. Jende guztia ezagutzen duzunez, denak koadrila berean ibiltzen gara, eskola berean. Dagoen desabantaila bakarra, zerbitzu ezarena da.



Eugenio Arana
32 urte, irakaslea
ordiziarra

Ahal den txikiena, lasaitasunagatik. Natura ere bertan izaten da. Txarrena da, jendea gehiegi ezagutzen dela. Zerbitzurik ere ez da izaten. Baina lasaitasunak horrek baino gehiago balio du.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 9

☎ 88 94 82

BEASAIN

Alkartasuna Lizeoa
BEASAINGO IKASTOLA

- Hezkuntz proiektu integrala.
- Beasaingo ikastetxe bakarra, 2-19 urte bitarteko irakaskuntza euskaraz eskeintzen duena.
- Garraio eta jantoki zerbitzua.



☎ **88 26 84**

ZINEA

BEASAIN

'Dracula' Ostirala 6: 22:15; larunbata 7: 19:30 - 22:15; igandea 8: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 9: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Ojo por ojo'. Ostirala 6: 22:15; igandea 8: 19:30 - 22:15; astelehena 9: 19:30.

'Asesinos ciberneticos'. Igandea 8: 16:45.



'Mision imposible'. Ostirala 13: 22:15; larunbata 14: 19:30 - 22:15; igandea 15: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 16: 19:30.

BERTSOAK

ORDIZIA:

Irailak 7, X. Amuriza, X. Euzkitze, J. L. Gorrotxategi, M. Mendizabal, J. Munduate eta J. Soroza-bal, 22:30etan, Herri Antzokian. Antolatzaile: Argi Berri elkarte. Laguntzaileak: Ordiziako Udala, Segura Irratia, Egunkaria eta Goierriko Bertso Eskola.

ZERAIN:

Irailak 14, U. Iturriaga, A. Mendiluze, J. Soroza-bal eta J. Sarasua. Gaijartzailea Joxepa Madariaga. 22:30etan, Pilotalekuan.

MUSIKA

BEASAIN:

Irailak 6, Gozategi, 24:00etan, Loinazpe Ikastetxean.

Irailak 19, Amaia Epelderen piano krentertua, 20:00etan, Usurbe Antzokian. Sarrera 500 pezeta.

DANTZA

ORDIZIA:

Irailak 13, Donostiako Eskola euskal dantzen taldea, Plaza Nagusian, 22:00etan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Irailak 13, Ordiziako antzerki tailerraren emanaldia, Usurbe Antzokian, 20:00etan. Sarrera 500 pezeta.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Irailaren 14tik 22ra bitartean, Goyo Huesoren argazki erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Irailaren 6ra bitartean, Manolo Rodriguezen erakusketa, Aterpe Tabernan.

Irailaren 7tik 27ra arte, Mamen Garciaren erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Irailak 6tik 20ra bitartean, Rikardo Ugarteren erakusketa, Barrenan.

IKUSENTZUTEKOAK

ATAUN:

Irailak 6, 'Prepyrenai-ka', L. Inazio Gonzalezen eskutik, 20:00etan, Oargin.

HITZALDIAK

ORDIZIA:

Irailak 10, EHNERen eskutik, 'Euskal nekazaritza norantz?', 20:00etan, Barrenan.

ZERAIN

Irailak 12, 'Euskaldunak Ipar Ameriketara', Joseba Etxarriren eskutik. Kultur Etxean, 20:30etan.

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaille ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnua. 65 29.01

**18
HILABETE**

Interesik gabeko finantzaketa



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

16 20 16

ORDIZIA

HIZKUNTZAK

- ✓ MAILA GUZTIAK ETA ADIN GUZTIAK
- ✓ AZTERKETEN PRESTAKUNTZA. (H.E.O., CAMBRIDGE ETA SELEKTIBITATEA)
- ✓ TALDE TXIKIAK (10 LAGUN GEHIENEZ)
- ✓ 96-97 KURTSO HASERA URRIAK 1. **MATRIKULA DOHAIN**

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 15, Besaideko Oroimenaren egunera irteera.

Idiazabalgo mendizaleak:

Irailak 8, Araotz-De-guria.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 15, Besaidera.

KIROL EKITALDIAK

BEASAIN:

Irailak 7, tenis txapelketa herrikoia kiroldegian, 15:00etatik aurrera. Partidu motzak izango dira, 4 jokutakoak. Izen ematea ostiralean kiroldegian.

ORDIZIA

Irailak 7, ohorezko mailako emakumezkoen eskubalo partidua: Arca-choneko (Frantzia) Myos eta Cortebianco-Bidebie-ta. 19:00etan, Kirolde-gian.

Ikastaroak Kulturki-deren eskutik

● **Elikagaien kontserba:** 9 orduko iraupena. Klase-ak irailaren 24, 25 eta 26, 15:00etatik 18:00etara. Matrikula 3.500 pezeta.

● **Lana: kontratu motak eta autoenplegua:** Bi zatitan banatzen da: 1- Kon-tratu motak. 8 ordu, iraila-ren 24tik urriaren 3ra, as-tearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 3.200 pezeta. 2- Autoenplegua. 10 ordu, urriaren 8tik 22ra, astearte eta ostegunetan, 19:00eta-tik 21:00etara. Matrikula 4.000 pezeta.

● **Bibliotekonomia II eta III:** Liburu, liburutegi eta Bibliotekonomiaren histo-riara hurbildu nahi da. Ka-talogazioaren alorrean sa-kondu nahi da. Ikastaroa-ren lehen zatian historia apur bat egingo da. Biga-rrengoan, praktikak.

Matrikulak irailaren 18ra bitartean, 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 20:00etara. 16 18 40 tele-fonoan edo Senpere Mer-katal Guneko bulegoan.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Peugeot 205 SR-a sal-gai, SS-1337-X matrikula-duna. Egoera onean eta in-teresatuok deitu 16 10 46 telefonora, eguerdian.

☐ Masaje edo estetizista kamila-mahaia saltzen da. Oso gutxi erabilitakoa. Dei-tu eguerdian edo gauean. 881734.

☐ Hiru zakurkume, Setter Perdiger arrazakoak, sal-tzen dira. Hiru hilabeteko-ak. 16 04 51.

☐ Suzuki RM 125 moto-rra salgai, 225.000 pezetan. 88 18 02 eguerdian deitu.

☐ Fotokonposizio lanak egiten ditugu. 72 02 95 (Kontxi). Zumarraga.

Etxebizitzak

☐ Lagun bat behar dut Ordizian pisu (egutera, zen-trikoa, egoera eta prezio onekoa) alokatua konpartit-zeko. 16 18 35 edo 88 22 68 telefonoetara dei. Jonenga-tik galdetu.



GOARDIAKO FARMAZIAK

6: Urbizu.

7-8-9: Atorrasagasti.

10: Azpilikueta.

11: Jauregi.

12: Lournaga.

13: Cuesta.


14-15: Urbizu.

16: Arriola.

17: Urbizu.

18: Atorrasagasti.

19: Azpilikueta.



Zorionak Cambridge-ko FCE azterketa egin zenuten guztioi

96-97-rako matrikula irailaren 4-22 bitartean goizeko 11 etatik 1era

J. M. Barandiaran, 1 ☎ 16 00 51
ORDIZIA



● **Iturgintza**

● **Berogintza**

Mendi-Ondo etxea

☎ 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 88 80 29

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA

96-97 ikasturtea

✓ ESKOLA LAGUNTZA

☐ Maila eta arlo guztiak

☐ Banakako atentzioa

☐ Talde txikiak

✓ OPOSAKETAK

☐ Laguntza informatikoarekin

✓ UNIBERTSITARIOAK

☐ Kalkulua eta kontabilitatea

☐ Estatistika

☐ Matematika

KURTSO HASIERA: Urriak, 1

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26

☎ 88 04 46 Faxe: 16 14 07

ORDIZIA



GABIONA

Rodamientos, S. A.

Biltegi eta bulegoak:

Goierrri k. 4

Goierrri K. z/g

☎ 88 45 00 Faxe: 88 99 06

ORDIZIA



HIDALGO

BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi Kalea, 4

☎ 88 04 06

ORDIZIA

Unanue

GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51

Santamaria, 10 ☎ 88 11 49

J. M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36

Obradorea:

Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Diarbidé Albizu



AGRIA

SABO



STIHL

Jonsered

Banatzaile ofiziala

Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI

Tfnoa-faxe: 16 15 15



sake
KOPERATIBAK

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu gama berezia

ITZIAR - DEBA (Gipuzkoa)

☎ 19 93 00 - 19 93 30 Faxe: 19 92 70

ERREZETA



Elena eta Eukene
Eroski kafetegia
Ordizia

LIMOI MOUSSA

Osagaiak: (20 lagunentzat)
20 jogurt, pote handi bat es-
ne kondentsatu (740 gramo-
koa) eta 5 limoiien zukua.

Jogurtak, esne konden-
tsatua eta limoi zukua de-
nak ondo nahastu. Hozkai-
luan sartu eta egun batetik
bestera utzi, gogortu egiten
baita. Limoi-birrindura edo
limoi arrallatua ere bota
daiteke.

Bera bakarrik edo eta
marrubiekin ere oso goxoa
gelditzen da.



Zorion Intxausti

Dietetikan diplomatua

Lehenik esan behar da,
ogiak gure elikaduran ga-
rrantzizko papera betetzen
duela. Hain zuzen, karbo-
no hidratoetan (almidoian
daude) aberatsa delako eta
gure gorputzak karbono
hidrato asko behar ditu.



Ogia karbono hidratoetan aberatsa da eta gure gorputzak karbono hidrato asko behar ditu.

AHOLKUA

Ogia, integrala ala txuria?

Bigarrenik esan behar
da, ogi integral eta txuria-
ren arteko diferentzia,
itxuran eta elikagaien edu-
kieran datzala.

Ogi txuria

Ogi txuria egiteko, elabo-
razio prozesu bat behar da.
Horren ondorioz, elikagai
asko kentzen zaizkio, ba-
tez ere bitaminak eta gatz
mineralak. Gorputza, bita-
mina eta gatz mineral ho-
rien beharrean aurkitzen
da almidoia erabiltzeko.

Orduan, pertsona baten
elikadura konplikutzen jo-
aten da, bere osasuna ere
konplikatu. Esplikazio
sakonago bat egiteko,
orrialdeak eta orrialdeak
beharko nituzke eta horre-
tan utziko dut.

Ogi integrala

Beste alde batetik, ogi in-
tegralak (benetako ogi in-
tegrala da, gariaren ger-
mena duena) ez ditu galdu
bitamina eta gatz mineral
horiek. Pertsona batzuk
ogi integrala ezin dute jan,
baina ohiturarik ez dutela-
ko da.

Gaurko artikulua honen
helburua ez da gai hau ar-
gitzea soilik, baizik eta
ikuspegi zabalago bat edu-
kitzea. Hain zuzen, zen-
bait janari, ogia bezala,
uzta jaso (tomatea adibi-
dez) edo lortzen denetik
(arraina adibidez) jan bi-
tarteetan, asko aldatzen da.
Ez dira janari naturalak.

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR



-ESKAILERAK
NEURRITARA

Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 88 11 94

ORDIZIA

Erasoak festetan

Ataun San Gregorioko jaietan, errepidea moztu zuten 2 edukinontzi edo kontenedoreri sua emanaz.

Zegaman berriz, San Bartolome jaietan, larunbat gauean, erasotu egin zuten zenbait ezezagunek, Zegamako BBVeko bulegoa. Kristalak hautsi eta artefaktu su-eragileak bota ziztuzten. Eraso hauek, euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde egin zituztela erreibindikatu zuten.

Salaketa

Lazkaoko 17 urteko A.I.A. gazteak Ertzaintzaren aurkako salaketa aurkeztu du. Abuztuaren 11n jasan omen zuen jipoia. Amnistiaren Aldeko Batzordeek jakitera eman zuten, ertzainek identifikatzeko eskatu zien gazteari. Ukatu zenean, orduan erasotu omen zuten. Barne Sailak gertakaria ukatu zuen.

Bellota Limas

Idiabalgo limatako enpresako LABek adierazi duenez, lantokia laster itxiko da, zuzendaritzak 68 langileetatik 20 mantentzeko asmoa azal-



Isidro Usabiaga hil zuen ETak

Uztailaren 26an, goizeko 5ak aldera, herriko jaietatik etxera zihoanean, tirokatu zuten Isidro Usabiaga ordiziar enpresaria. ETak bere gain hartu zuen hilketa. "Salataritzat" jo zuen Usabiaga. HBk izan ezik, beste alderdi politiko guztiek gogor salatu zuten hilketa eta jaiak bertan behera gelditu ziren. Txosnen inguruko jaiak, ordea, ez zuen etenik izan. Manifestazio handia egin zen hilketa salatzeke. Mayor Oreja, Atuxa eta hainbat politiko izan ziren bertan.

'Diru Gutxi', ETaren iraultza zerga biltzen zuen komandoa atxilotzeko operazioaren barnean kokatu zuten Usabiaga. Operazioaren berri ematean Atutxak azaldu zuen bideoan, Usabiagaren autoa ikusten zen eta Carlos Almorza eta ordiziarren arteko elkarriketa azaldu zuen.

du bazuen ere. Beste langilak Legazpiko lantokian ariko dira lanean, asanbladaren gehiengoak onartu zuen bezala. LABen esanetan, ordea, momentuko irtenbidea besterik ez da. Sindikatuak Idiazabalgo lantokia errenta-

garria ez dela proba dezaten eskatu die zuzendaritzari, "taldeak 1995ean 224 milioi pezetako irabaziak izan baitzituen". Idiazabalgo Limak isteko "argumentu bakarra produzioa Latinoamerikan merkeagoa ateratzen

dela bada, orduan Euskal Herriko fundizio lantoki guztiak itxi daitezke, eta hori ez dugu onartzen", LABen esanetan.

Erdi arora bisita

Erdi Aroko azoka berezi arrakastatsua izan zen Ordizian abuztuaren 6 eta 7an. Artisanu produktuekin batera, saltibankiak, malabaristak, eta hainbat pertsonaia ikusi ziren. Guztira 23 artisau izan ziren.

Cubaren aldeko kanpaina

Goierriko LAB sindikatuak Cubara eguzki kalkulagai-luak, pintura mota guztiak eta material eskolarra biltzeko kanpaina jarri du martxan. "Cubako Gobernuari elkartasuna adierazi nahi diogu. Kapitalismoa, imperialismoa eta hainbat gobernuen interes ekonomiko berritzen aurka, blokeoaren aurka, gure errekonozimendua adierazteko bide bat izanik honako kanpaina hau". Bilketa lekuak hauek dira: Beasainen Eusko 100, Elkartasun Dendan eta LABen bulegoan; Ordizian, Todo a 100 eta Eroskin. LABeko ordezkariak ere jasotzen dute materiala.

Disco-Shop
Zure disko denda!

K. Nagusia, 42 ☎ 16 19 76

BEASAIN



☎ 88 00 44

LAZKAO-ETXE

- JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK
- NEKAZALTURISMOA

- ➔ 4 logela, beren bainugelekin
- ➔ Gosari, bazkari eta afariak

Aiestaran erreka

ZALDIBIA



**LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia**

1996/97 IKASTURTEA

GOIERRITARRENTZAKO IKASTAROK

IKASTAROK:

- ✓ 5 ordu goizean (8 - 13:30)
- ✓ 2 ordu egunean (goizean, bazkalondoan, iluntzean)
- ✓ Larunbatetan (9 - 13:30)

MATRIKULA IRAILAREN 9TIK 13RA.

LANGABEENTZAKO PREZIO BEREZIAK.

DEITU ETA ESKATU INFORMAZIOA

Tel.: 88 92 31 - 88 92 32

HABEren dirulaguntzaz.

LAZKAO



Bautista Oiarbide.

Gipuzkoako Artzai Gazta txapelketa

Irailaren 1ean Legazpin izandako Gipuzkoako Artza Gazta txapelketan, goierritar artzainek paper ona jokatu zuten. Jesus Aranburu idiazabalardar eta Juan Aldasoro zegamar artzainen gaztak, 2. eta 3. onenak izan ziren.

Era berean, urtero omentzen dituzten artzainetatik bat, Idiazabalgo Soraluze

baserrian jaiotako Bautista Oiarbide artzaina izan zen. 87 urte ditu. 46 urte inguru ibili da artzain. Otzaurtetik gora, Iramendin, izaten zituen ardiak. Beste langintza batzuetan ere aritu izan da. Gaztetan okindegi batean morroi egon zen. Horregatik zenbaitek 'Panaderoa' deitzen dio. Hargintzan peoi ere ibilia da. Erretiratu eta Idiazabalen bizi da.



Etor Mendia.

zen 'Ironman' proba ospetsu eta gogorrean. Taldeka laugarren postua egin zuten. Bakarka, berriz, honela gelditu ziren: Etor Mendia 17.; Aitor Eskalante 19.; eta Igor Mertxan 50.. Lazkaoko kronikan duzue informazio gehiago.

Himalaya

7.075 metroko Satopanth mendia igotzeko asmotan, Himalaya aldean ditugu Arkaitz Mendia, Andoni Barandiaran lazkaotarrak, Pe-

llo Murua eta Pedro Garcia ordiziarak eta Aimar Reparaz idiazabalardarra. Abuztuaren 19an irten ziren etxetik eta hil honen bukaerarako etxean egotea izatea espero dute. Zorte on!

Broad Peak (8.047 m) mendia igotzen saiatu den beste espedizioa (Koke Lasa ormaiztegiarra, Aitzol Telleria eta Felix Goiburu segurarrak osatua) etxean da jada. Gailurra igo gabe itzuli dira. Segurako kronikan duzue informazio gehiago.



Aitor Garmendia

Itsasondoarra izan zen Ordiziako Txirrindu Probaren irabazlea. Ekaitza izan zuten etaparen amaieran. Garmendia berak 2 zulatu izan zituen. Baina helmugako marra bigarrenak baino 31 segundu lehenago zapaldu zuen. Tourra ere ona egin zuen itsasondoarrak, 35.a

izan zen, irabazlearengandik ordu bete eta 20 minutu pasatxora.

Jokin Mujika

Atlantako Joko Olinpikoetako Mountain Bike proban ez zuen zorte handiegirik izan. Itsasondoarrak 22. egin zuen. Erretiratzea erabakita omen dauka Jokinek.

Mikel Lasa

Ligorretako futbolista, Real Madridero jokalaria izango da. Donostiako futbol taldearen eta beste hainbat talderen eskaintza jaso badu ere, Madril aldean geratuko da.

Iker Sukia

Sidneyen izan ziren junior mailako Munduko atletismo txapelketan, pisu jaurtikit, 8. egin zuen. Ataundarrak 16,77 metrorekin. Bere markatik ia 70 zentimetrotaragelditu zen bola.

Segura Futbol Taldea

Segurako Futbol Taldeak infantiletan, kadeteetan zein jubeniletan jokatu nahi duten guztiei entrenamentueta-
ra ager daitezen eskatzen die. Segurako futbol zelaian, iluntzetan.

Triatloia

Beasaingo Arrikutz Triatloi taldeak lan bikaina egin zuen, Danimarkan jokatu

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

96-97 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

GOIZTIRI  EUSKALTEGIA

IKASTAROAK

2, 3, 4 eta 5 ordu
goizez, arratsaldez
eta gauez

MATRIKULA EPEA

Irailaren 27rarte
goiz eta
arratsaldez

MAILAK

Euskalduntze
Alfabetatze
EGA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 88 91 74

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

AMELIA JAUREGI, GAUR EGUNGO EMAKUMEZKO ARTZAINA:

"Tradizional segitzen duen artzainak ez dauka etorkizunik"

Amelia Jauregi, Gabiriako Baztarrika baserrikoak, 47 urte ditu eta 250 buruko artaldea du. EBEL, Emakumezko Baserritarren Elkarteko kide ere bada, baserriko produktuak saltzen ditu baserrian bertan, Nekazalturismoko etxea da, Goimenen bisita didaktikoetan ere parte hartzen du... baserria bultzatzeko sortutako iniziatibetan parte hartzen du.



Urritik ekainera, bi egunez behin egiten ditu gaztak, 45 bat aldiko. Saldu, etxean bertan, harategietan eta azoketan saltzen ditu.

G.- Noiztik artzantzan?

E.- Artzantzan beti ezagutu izan ditut etxean. Aita artzain profesionala zen. Mendian egoten zen, nahiz eta Gabiriak ez duen terreno mankomunalik. Beste herri batean enpadronatu behar izaten zuen. 'Txantxullo' bidez, Otzaurte eta Sagastietan inguru hartan zuen txabola bat. Orain ere egiten dira horrelakoak.

Baserri hau erre egin zen eta behi esnetara dedikatu ginen. Gero berriz, martxa hartu dudana eran, arditara pasatu naiz. Batetik, neuri ardia gehiago gustatzen zaidalako. Bestetik, neguan lan handia badute ere, 3 hilabetezko atsedentxoak izaten da; behiek, egunero-egunero behar dute.

Aitarengandik ikasi nuen oinarria. Gero ikastaroak urtero egoten dira bai ardiei dagozkienak, bai gaztagin-

tzari dagozkionak. Beti ibili behar ikastaroe-tan, bestela desfasatuta gelditzen da. Ikasi beharra dago.

G.- Non bazkatzen dute zure ardiek?

E.- Etxe inguruan. Inguruko zenbait terreno ere alokatzen ditugu. Hainbeste buru hainbeste terreno behar da. 250 bat buru ditugu.

G.- Non bazkatzen duten arabera izaten omen dira gaztak.

E.- Gazta probatzaileek hori esaten dute. Baina ez dut uste horregatik bakarrik denik. Egongo da aldea. Araba aldekoek gaztari gusto gehiago ematen diela esaten da. Hemengoek ere sariak ateratzen dituzte, behintzat.

G.- Gaur egun gazta sua-

bea gehiago eskatzen omen da.

Gazta asko jaten da orain, azoketan asko saltzen da.

"Gaur egun familian jaten da gazta. Erdi pareko bat egiten da, baina suabe aldera jotzen duena"

E.- Lehen gazta ez zen orain hainbat egiten, eta tabernan ardo piska bat edateko gaztak egiten ziren. Gaur familian jaten da gazta. Orduan erdi pareko bat egiten da, baina suabe aldera jotzen duena. Baina askok ardoa edateko moduko gazta eskatzen dute. Bakar batzuk egiten dira fuertexagoak.

G.- Inbertsio handiak egin dituzu.

E.- Ikuilua oso eskasa geneukan. Hor gelditu edo aurrera jarraitu zen kontua. Bi bi-

de geneuzkan eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. Ikuilua eta gaztategia egin ditugu, inbertsio handia. Baina behartu gaituztelako egin behar izan ditugu. Etiketa bat ateratzeko erregistro bat behar da eta erregistroa ateratzeko, Sanidadeak eskatzen dituen baldintzak bete behar dira.

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



Senpere Merkatal Gunea

Tfnoa eta faxa: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak

P. V. C. ● Aluminio ● Poliuretano
Ateak ● Pertsianak ● Gortinak
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behea

☎ 46 22 66 Faxa: 46 22 24 DONOSTIA

**G.- Artzain tradizionale-
tik piska bat aldentzen za-
ra.**

E.- Tradizional segitzen duen artzainak ez dauka etorkizunik. Oso polita da kaletarrentzako. Guk ere ar-
dien maneja ez dugu ezer aldatzen. Gu ez gara mendi-
ra joaten. 100 ardi izan eta
gastu handirik ez duen ar-
tzain batek, ez dauka inber-
tsioen beharrik. Guk aurre-
rako pausoa eman dugunez,
familia bat aurrera atera be-
har dugu, ikuilua eta gazta-
tegia ordaindu... Tradizio-
nalarekin ez daukagu ezer
ez. Oso polita eta ahal du-
dan neurrian jarraitzeko
prest nago. Ume asko etor-

tzen da hona gazta egitera.
Nik nola egiten dudana era-
kutsi aurretik, lehenago no-
la egiten zuten adierazten
zaie. Ahalegintzen gara le-
hengoa ere, besterik ez ba-
da, hitzez kontserbatzen.

**G.- Genetikoki asko ari da
hobetzen.**

E.- Selektzio bat egiten ari
gara eta latxa ardia hobetu
nahi dugu. Tradizionala ere
bere erara hobetzen joaten
da. Beti hartzen du artzai-
nak berari onena iruditzen
zaion aharia. Guk, ELE, Ar-
di Latxen Elkartean gaude-
nok, Arkauten ahari zentro
bat daukagu. Hara bidaltzen
ditugu gure aharirik one-
nak. Handik hazia ekartzen



"Ez da berdina baserri batean lan egitea edo lantoki batean. Baserrian beste satisfazio bat izaten da, beharbada gogorragoa, neketsuagoa den arren".

dugu. Eta aldaketa horixe
da.

ten dituzte probak egiteko.
Puntu batzuk, baremo ba-
tzuk jarrita dauzka eta horra

"Emakume gehienek Seguridade Sozialik gabe lan egiten dute baserrian"

**G.- Idiazabal Jatorrizko
Izena sortzeak onurarik
ekarri al du?**

E.- Gaztari Jatorrizko Ize-
nak eman dio indarra, pu-
blizitatearekin berak zabal-
tzen du. Horrek laguntzen
du. Baina hor egoteko erre-
gistro bat eduki behar duzu.
Eta artzaina bera ere menta-
lizatu egin behar da. Ar-
tzain askok pentsatzen dute
etiketa hori diru eramanga-
rri bat dela. Baina etiketa
hori daraman gazta kontrol
batzuetatik pasatuta dago.
Hasi esnetik eta gazta egin
arte. Jatorrizko Izenekoek
hilero hilero 3 gazta erama-

iristen ez dena, eli-
minatu egiten da. Ez
da eliminatzen txap-
elketatik, baizik
eta aste horretan
egin diren gaztak
ezin izango dira sal-
du. Beraz etiketa, ez da gaz-
ta gainean dagoen paper bat
bakarrik, kontrolaren pape-
ra da.

**G.- Nahiz eta emakumeak
lan gehiago egin, gizonez-
koa izan da beti aurpegia
eman duena. Zure kasuan
ez da horrela.**

E.- Lotsagabe samarra izan
naizenez... Baserrikoa neu
naiz, gizonaren baserrira
ezkondu izan banintz oso
desberdina izango litzateke-
en. Esplotazioa nire izenean
dago, titularra ni naiz.

*Loinaz Agirre
Mikel Albisu*

Emakume baserritarra

EBEL, Emakumezko Baserritarren Elkarteko kide da Amelia. Emakumeak nahiko sakabanatuta ikusten ziren. Beste irtenbide bat behar zutela ikusten zuten bere arazoak azaltzeko. Alde batean eta bestean ibiltzen ziren emaku-
meak elkartu ziren lehenengo EBEL-en eta gero zabaltzen joan da taldea.

Baserriaren egoera eta egoera horren barruan emaku-
mea nola dagoen aztertzen dute. *"Lehenengo burura etor-
tzen zaidan arazoa, zenbat emakume dagoen baserrian la-
nean eta ez dela inon azaltzen, --dio gabiriarrak-- Seguri-
dade Sozialik ez daukanez. Arazorik handiena hori da. He-
rri txikietako baserri gehienetan emakumeak darama ba-
serria. Gizonak lantegiren batean egiten du lan. Bestalde-
tik, baserriko emakumea oso gutxi mugitzen da. Jende ho-
rri piska bat lagundu nahi zaio.*

Baserriak lege aldetik daukan egoera ere aztertzen du-
gu. Baserriaren segimena, zaharretik gazteetara pasatzeko
oztopo hori. Generalean gizonaren etxera joan delako
emakume hori. Orduan ezkondu da, senarra dauka, hau-
rrak ere bai eta hortik aurrera ezer ez. Titularra gizona
bada ere, kotitularra emakumea izan dadila eskatzen du-
gu".

GOIERRITARRA



88 96 12

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

HIRIBARREN, 24
☎ 88 95 83

LAZKAO

Euskal Astea Ordizian



Baserritarrez jantzita

Azoka bereziaren egunera-ko, haur, gazte, heldu, zahar... ahal duen guztiak baserritarrez jantzita kalera ateratzeko deia zabaltu dute Udaleko Kultura Sailetik. Urtetik urtera gehiago dira baserritarrez jantzen direnak, eta ohitura "polit" hori bultzatu nahi dute.

“Ordizian” merkatarik elkarteko dendariak ere, baserritarrez jantzita izango dira asteazkenean. Dendak ere euskal itxuraz apainduko dituzte. Jakin ba dakigunez, gazta pintxoak ere izango dira erostera hurbiltzen direnentzat.

Aurtengo eztiaren kanpainaaren auzkepna

Asteazkenean eztiak leku berezia izango du. Batetik, aurtengo denboraldiaren auzkepna izango da. Bestetik, labeldun ezti bera eta ezti egiteko tresnak bilduko dituen erakusketa izango da Nikolas Lekuona plazan. Labela duten beste produktu batzuk ere izango dira ikusgai.

Goizeko 11etan, 1996ko kanpaina Kalitatearen Euskal Labeldun eztiaren auzkepna izango da, Udaltxeko Batzar Aretoan. “Gure Ezti” da Gipuzkoako erlazeinek merkaturatzen duten labeldun ezti.

Metereologia ikuspuntutik oso urte ezohekoa izan da aurtengoa. Udaberrian tenperatura aldaketa latzak izan dira, beroak eta hotzak, urte sasoi horretan egiten ez dituenak, horregatik aurrikusitakoa baino uzta eskasagoa izan da.



Ricardo Ugarte

Irailaren 6an, iluntzeko 7etan, irekiko da Ricardo Ugarte eskultorearen erakusketa. Artistak berak dioenez, “artearen bide hauetan bate-tik bestera ibiltze honetan, hainbat geografia eskulturaz betetzen joaten da norbera, egile baten lan ezagunenak eta ibilierna izaten dira leku hauek, baina badira beste ibilbide kuttunagoak paper gainean irrist egiten dutenak,

hala nola, idaztea, marrazkia, collagea, hauek guztiak sormeneko ardatz beretik sortzen dira, baina espresio-tresna diferenteak erabiliz. Hemen Ordizian azaldu nahi izan dut lan horren zati bat, inguru hauetan ezezaguna dena, eta honekin batera nire ikerketa estetikoaren prozesua laburtzen duten eskultura esanguratsuenak”. Nikolas Lekuona ordiziar pintoreari eskaini nahi dio erakusketa. Irailaren 20arte izango da ikusgai, Barrenan.

Bertsolariak

Xabier Zeberio eta J.I. Begiristain bertsolariak izango dira, eguerdiko 1a aldera, Garagartza plazan.

Dantzariak

Haurren sueltoko dantza txapelketarako 30 bikotek eman dute izena. Igandean, Oian-

gun izango da finala, eguerdiko 12etan. Baina aurkeztu diren bikote kopuru handia ikusirik, asteazkenean, arratsaldeko 7etan, kanporaketak izango dira, Plaza Nagusian.

Helduen txapelketa ere, igandean izango da, Oian-gun, arratsaldeko 5.30etan. 16 bikotek eman dute izena.



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

☎ 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

ARANTXA taberna

PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK

☎ 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA



Umeen arropa denda

UDAZKEN NEGUOKO ARROPA
BERRIAK PREST DITUGU
MODA-MODAN JAZTEKO

☎ 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



Bertako produktuen VI. sukaldari txapelketa

Elkarteen arteko sukaldari txapelketa izango da irailaren 10ean, Larrun-Arri elkarteak antolatuta. Bi plater prestatu beharko dituzte: lehenengo plateran, bakoitzak nahi duena prestatu beharko dut, baina 'Idiazabal gazta' egindakoa behar du izan. Bigarren plateran, eusko oiloa prestatu beharko da, bakoitzak nahi duen erara.

17:30etan hasiko da txapelketa eta 20:30etan aurkeztu beharko dira prestatutako jakiak. Gehienez 14 elkarrek har dezakete parte.

Sariak: lehenengo plater onenari 25.000 pezeta; bigarren plater onenari 25.000 pezeta. Lehenengo saria 35.000 pezeta, txapela eta garaikurra eta 2.ari 15.000 pezeta.

Orain arteko elkarte irabazleak hauexek dira: Irriki (Ordizia), Txapel-gorri (Ordizia), Murumendi (Beasain, 2 urtez jarraian) eta Aitzorrotz (Beasain).

Aurten bigarren urtez jarraian, Goierriko odolki onen arteko lehiaketa eta probaketa ere izango da.



Lazkao Txiki bertso-paper saria

Ezagutzen dira jada, V. Lazkao Txiki bertso-paper lehiaketaren irabazleak:

Gaztetxoetan: 1go Aina Zubeldia beasainarra; 2. Irati Goikoetxea beasainarra; eta 3. Aitzol


Munduate ataundarra.

Gazteetan: 1go eta 2. sariak Leire Ostolaza azpeitiarrarentzat izan dira; 3. Leire Bilbao ondarrutarrak egin du; eta aipamen berezia jaso du Alaitz Sarasola ordiziarraren bertso sortak.

Helduetan: irabazle Rufino Iraola zaldibiarra; 2. Aitor Sarriegi beasainarra; eta 3. Fermin Muñoa berrobitarra.


25 partaide eta 29 bertsolan aurkeztu dira. Epaimahaia, Iñaki Murua, Josean Ormazabal eta Nikolas Zeberio osatu dute.

Eskola Dantza Taldea



Donostiako 'Eskola' euskal dantzen taldeak ikuskizun berria eskainiko du Ordizian: 'Eusko irudia'. Talde hau Euskal Herriko onenetakotzat jota dago. Hilaren 13an, gaueko 10etan duzue zita, Plaza Nagusian.

Akordeoi txapelketa



Igo barietate modalitateko Ordiziako akordeoi txapelketan, 6 soinu-jolek eman dute izena. Bi saio izango dira. Bata, hilaren 7an, Barrera, goizeko 10etan; bestea, finala, hilaren 14an, gaueko 10etan, Kiroldegian. ETBko lehen kateak eskainiko du, saio hau.

ALAI

**Taberna
Kafetegia**

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

**Urdaneta, 2
ORDIZIA**

Azantza

MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDIARAN ENPARANTZA, 3 - Tel. 88 75 15

ORDIZIA

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 - behe

☎ 88 19 50 **ORDIZIA**



JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Zure ilea eguzkitik babesteko tratamendu bereziak

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

*Presio altuko
solariuma*

Euskal astea prest

● Irailak 7, larunbata:

10:00etan: Ordiziako I. Akordeoi Lehiaketaren kanporaketa, Barrenan.

11:30-13:30etara eta 16:00-20:00etara: Umeen-tzako jolas-parkea, Joxe Migel Barandiaran plazan.

19:00etan: Emakumezkoen eskubaloia, Ohorezko Mailakoa, Arcachoneko (Frantzia) Mayos eta Cortes-blanc-Bidebieta talden artean, Majori Kiroldegian.

22:30etan: Bertso jai-dia: Amuriza, Euzkitze, Gorrotxategi, Mendizabal, Munduate eta Sorozabal.

● Irailak 8, igandea: jubilatuen eguna

9:00etan: Trikitilarien goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30etan. Trikitixek alaituko dituzte kaleak.

14:30etan: Jubilatu eta pentsionisten bazkaria, Beti-Alai pilotalekuan. Ondoren dantzaldia Jelatxo taldearen eskutik.

● Irailak 10, asteartea:

17:30etan: VI. Sukalderitza Lehiaketa.

● Irailak 13, ostirala:

22:00etan: Eskola euskal dantzen taldea.

● Irailak 14, larunbata:

10:30etan: Txirrinduen ginkana umeentzat, Jose Migel Barandiaran plazan.

22:00etan: Ordiziako I. Akordeoi Lehiaketaren finala, barietateak modalidadean, Majori Kiroldegian.

● Irailak 15, igandea:

9:30etan: Ordiziako Txistularien kalejira.

11:00etan: Hamaiketakoa eta bertsolari gazteak.

12:00etan: Lazkao-Txiki IV. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa, Barrenan.

12:00etan: Haurren mailako sueltoko dantza txapelketa Oiangu.

13:00etatik 14:30etara: Oiangu trikitilariak.

16:00etatik 17:00ak arte: Haurrentzako jolasak eta toka txapelketa, Oiangu.

17:30etan: Bikoteen arteko helduen mailako sueltoko dantza txapelketa, Oiangu.

19:00etatik 21:00etara: Trikitilariak Oiangu.



Azoka berezia, asteazkenean

● Irailak 11, asteazkena:

9:00etan: Ordiziako Txistulari, Tolosako Dultzainari eta Zumarragako Trikitixak alaituriko goizeresia.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruitu, barazki eta lepagorri oilaskoen txapelketa eta perretxikuen erakusketa.

12:00etan: Jose Migel Barandiaran plazan fruitu, barazki eta perretxiku lehiaketetako sari banaketa.

12:45etan: Garagartza plazan, ganadu eta lepagorri oilaskoen lehiakete-

tako sari banaketa. Ondoren bertso-saioa, dultzainari eta trikitilariak.

13:00etan: Gazta txapelketako sari banaketa Beti Alai pilotalekuan.

17:30etan: Beti Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuz eskuzko pilota partiduak.

19:00etan: Plaza Nagusian bikoteen arteko sueltoko dantza txapelketako kanporaketak, haurren kategorian.

19:30etatik 21:30etara: Alde zaharrean, trikitilariak kalez-kale.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altxarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90

Mallotz, 25. pab.

Faxa: 88 82 67

ORDIZIA



OIANGU
TABERNA



☎ 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

JEXUXA, ANDONI, MIREN ETA MARIBI AMILIBIA

Siglo XXren azken belaunaldia

Ordiziako Asto Kanean dagoen Siglo XX taberna, beti izan da asteazkenetako azokarekin lotutako taberna. Bai lehen, bai orain, asteazkenetan baserritar ugariren janleku izaten da. 78 urte ditu taberna honek, baina historia luzeagoa dauka. Hiru belaunalditako historia luzea. Laugarren belaunaldirik, ordea, ez du ezagutuko.

Jexuxa, Andoni, Miren eta Maribi Amilibia laukoteak osatzen du Siglo XX tabernaren 3. belaunaldia. Joxepa eta Patxi aiton-amonek ireki zuten taberna. Enparantza Nagusiaren ondoan dauden arkupeetan zegoen 'Cafe Moderno'-n. Gaur egun taberna kokatuta dagoen etxea erosi eta duela 78 urtez geroztik, hainbat otordu zerbitzatu dira bertan. Luzia eta Antonio gurasoek taberna hartu zutenean, ordea, 'Durango' jarri zioten izena, Antonio aita duranga-

rra izaki, horrela deitzen baizioten. Jendeak hala ere, Siglo XX deituz jarraitu zuen. Seme-alabek taberna hartu zutenean, Durango izena kendu eta Siglo XX jarri zioten. Izen hau zergatik jarri zioten, ez dakite.

Asko aldatu da

Asteazkenetako azokarekin lotutako taberna izan da betidanik Siglo XX. Baina ohiturak asko aldatu dira. Lehen egun osoko azokak izaten ziren, garraiorik ez zegoen, oinak eta astoak ezik. Hori dela eta, perira etorri, ondo bazkaldu eta eguna pasatuta itzultzen ziren etxera. Bazkaldu, ondo gainera, Siglo XXekoek adierazi digutenez: hasteko zopa eta garbantzuak; legatz frijitua eta txuleta edo oilaskoa ondoren; ardoa, postrea, kafea eta abar. Hori bai, gizonezkoak tabernan, eta emakumezkoek sukaldean bazkaltzen zuten.



Miren, Maribi eta Jexuxa. Koadroan ama Luzia. Andoni anaia falta da argazkian.

Orain, bakoitza bere autorekin etortzen denez, bazkaltzera etxera joaten dira baserritarrek. Baina gosalteko tartea hartzen dute Ordiziako tabernarik zaharrena den honetan. Gosariarekin batera, postrea eta kafe konpletua hartzen dute gaur egunekoek. "Bezeroak, familiakoak bezala" dituztela aitortu digute 3 ahizpek.

Tripakiak

Amak amonarengandik eta alabak amarengandik ikasi dute sukaldean. Siglo XXe-

ko tripakiek eta albondigek dute famarik handiena. Aitortu digutenez, otordu goxoen sekretu nagusia, eskuaz gain noski, ikatzezko sukaldea dute.

Bitxikeria bat kontatu digute: "biajante batek babarrunak eskatzen zituen beti, abuztuan ere bai. Guk erosten genituen babarrunak emateko eskatu zigun. Guk jartzen genituen babarrunak ez zirela eta gureak emateko eskatu zigun hurrengoan ere. Goazen lasai hitz egitera: zure emazteak zer ordutan jartzen ditu babarrunak? 10etan. Ba guk 8etan edo 7etan jartzen ditugu, atze- atzean, poliki poliki, 1etan jateko".

Hirugarrena eta azkena

Hirugarren belaunaldia da Jexuxa, Andoni, Miren eta Maribi anai-arrebena. Eurek esan digutenez, ez du jarraitailerik izango. Eurak erretiratzearrekin batera, erretiratu da Siglo XX ere.



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak

Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

AMONANE



Nagusia, 30

ORDIZIA

SIGLO XX

TABERNA

JATETXEA

Festa onak pasa!

☎ 88 10 96 Elkano, 6
ORDIZIA



**Pintxoak
Ogartekoak
Bazkariak
Afariak**

☎ 88 00 35 ORDIZIA

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

BEASAIN

Andramendi Ikastolak ateak ireki ditu



Oztopo guztiei aurre eginez, Geurea Ikastolak bere bidea jorratu du ikasturtea irailaren 9an hasiz. Andramendi Ikastola, martxan jarri dute. Oraingoz Derrigorrezko Lehen Hezkuntza bakarrik emango da Beasainen, 2-12 urte bitarteko haurren hezkuntza. Eta Lazkaon Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Baina Ikastolaren helburu nagusienetako bat bi lerrotako hezkuntza herrian bertan lehenbailehen ezartzea da.

Hasteko Olano etxean eta plazan kokatuko dira ikasgelak, ondoren Urbialden jarraitzeko asmoa dutelarik. Zuzendaritza Tere Irastortza zaldibitarraren esku dago. Doktoregotza ikasketak egingen ari bada ere, Ikastolaren buru izango da poeta gazte hau. Euskal Filologia ikasketak egin eta Bergarako UNE-Den irakasle egona da poesia liburu idazlea izateaz gain. Azken honetan zenbait sari aipagarri jaso ditu.

Finantzaketari dagokionez, Ikastola autofinantzaketan oinarrituko da. Kontutan hartu behar da baita ere,

Ikastola eta eskola publikoa banatu direnez, Alkartasuna Lizeoak patrimoniak eta administrazioetik jasoko diren diru-laguntzak banatu behar dituela.

Irakasle eta irakasleak behintzat baditu Ikastolak, martxan hasteko derrigorrezkoak diren bi faktoreak beste batzuen artean. Irakasle hauek jarraituko duten hezkuntza proiektua Ikastolen mugimenduarekin bat datozena da.

Euskadiko arku tiraketa

Uztailaren 6 eta 7an Leioan jokatu zen arku tiraketatik bi sari ekarri ziren Beasaina. Jubeniletan Asier Barbadillo 2. izan eta Ander Telleria, seniorretan, txapeldun.

Mendizale Elkartea

Usurbeko festarekin batera, Aitzgorri Mendizale elkarteak aurtengo 2. denboraldia hasi du Gabonak bitartean. Asteburuan Berastegitik Gorritira bitarteko ibilbidea egingo dute, eguerdian etxera bueltatuz. Finalista egunarekin amaituko dute urtea.

Izaskun Salazar

Igartza auzoko jaiak asteburuan

● Irailak 6:

19:00etan: Buruhandi eta txistularien irteera.

19:30etan: Trikitixa.

22:00etan: Panta Rhei taldeak "Zaborrauta" lana eskainiko du Loinazpe Ikastetxean.

24:00etan: Gozategi.

● Irailak 7:

10:00etan: Igeriketa frogak.

11:00etan: Marrazki lehiaketa.

16:00etan: Mus txapelketa Loinazpe Ikastetxean.

16:00etan: Haur jokoak.

17:00etan: Toka eta igela, erretiratuentzat.

23:00etan: Jator taldea.

23:30etan: Mozorro lehiaketa.

6:00etan: Gantzontzilo lasterketa.

● Irailak 8:

12:30etan: Buruhandiak eta txaranga.

13:00etan: Poteoa Koskola txarangarekin.

14:30etan: Herri bazkaria.

17:00etan: Herri kirolak.

18:30etan: Hildakoen aldeko meza. Ondoren erromeria.

19:00etan: Dantzariak.

20:00etan: Poteoa.

22:00etan: Pobre de mi.



Joan zen asteburuan Usurbe mendiko jaiak ospatu ziren, ohiturari jarraituz. Bertsolariak, aizkolariak, haur jokuak, trikitilariak.... denetik izan zen. Omenduak ere bai. Aurtengoan Olatzar baserriko Kaxiano Elustondo omendu zuten. Jokin Leunda, Morlansen hil zuten beasaindarrari ere omendaldia eskaini zitzaion. Urteroko bazkaria ere, ederki joan zen. Nahikoa haragi jateko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Uda honetan hain gutxi bisitatu gaituen eguzkiak eta eguraldi onak ere lagundu zuen festa giro onean ospatzen.

AKELARRE taberna

Festa onak para!

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 23 12
BEASAIN

ARKATZA

- ➔ Eskola materiala
- ➔ Fotokopiak
- ➔ Bideo Kluba
- ➔ Kiniela seilaketa

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 22 09
BEASAIN



KAFETEGIA
GOZOTEGIA

Igartza Oleta, 14
BEASAIN

EZKIO-ITSASO

Irailaren 8an, izango da Gipuzkoako XXVIII. Ardizakur Txapelketa, Mandubiko gainan. Goizeko 11etan izango da eta 11 artzainek eta zakurrek hartuko dute parte.

Bi kanporaketa jokatu dira Irun eta Azkoitian. Guztira 19 partehartzaile izan dira eta horietatik 11 sailkatu dira finalerako. Hauexek dira: Luis M. Andueza eta 'Lagun'; Pedro Segurola eta 'Lagun'; Jose Antonio Arri-



Zakurrak hesian sartu beharko ditu ardiak, ahalik eta denborarik laburrenean.

Kizkitzako erromeria

Irailaren 8a, Kizkitzako Andra Mariaren eguna izaki, aurtengoa ere izango da festarik. Eguerdiko 12.00etan Meza Nagusia izango da eta ondoren bertsolari gazteak eta Zabale Anaiak trikitilariak. Herri bazkaria ere izango da, norberak berea eramanda. Mahaiak antolatzaileak jarriko dituzte. Arratsalde partean, trikitilariak alaituko dute giroa.

llaga eta 'Motxa'; Jose Luis Madinabeitia eta 'Bat'; Pedro Pagadizabal eta 'Xarbo'; Jose Antonio Arrillaga eta 'Txiki'; Ramon Larrañaga eta 'Riki'; Jesus M. Plazaola eta 'Nere'; Gillermo Segurola eta 'Alai'; Eugenio Arretxe eta 'Lista';

eta Jesus Mari Plazaola eta 'Mendi'.

Lehenengo sailkatuak eta bigarrenak, irailaren 17an Berrizen jokatu den Euskadiko txapelketan parte hartuko dute. Era berean, zakur irabazleak, Oñatiko Nazioarteko Ardizakur txapelketan parte hartuko du.

1968an hasi zen txapelketa hau ospatzen. 1971tik 1975era bitarteko Gipuzkoako txapelduna, herriko Angel Aranzadi izan zen, 'Xol' txakurrarekin. Ezkion txakur txapelketak harengatik hasi omen ziren antolatzen eta harek hasitako bigarrena eutsi diote Juan Joxe Aranburuk, Juan Manuel Aldanondok, Mikel In-txaustik eta Martin Lasak.

OLABERRIA

Abuztuaren 29an, San Joan txiki eguna ospatu zen. Sanjoanetan eguraldia ez zen oso ondo portatu, eta San Joan Txiki egunean ere berdintsu. Euria izan zen protagonista.

Giroa hala ere, ona izan zen. Hamaiketakoan, herri-ugarik hartu zuten parte. Aspaldiko ezagunak ikusi, hau esan, bestea entzun... gustora guztiak. Eta gustora janarekin. Ez zen ez mahai gainean sobra gehiegirik ikusten. Askok, bazkaltzeko

beharrik ere ez zuten.

Herri kirolak eta bertsolariak ere ederki aritu ziren.

Gau partean, Erramun Martikorena Iparaldeko artzainak ederki goxatu zituen belarriak. Baita Etzekit taldeak hankak astintzekomodo musika jo ere. Denak gustora, beraz. Hurrengo urtean, gehiago. Eta ea eguraldiak gehiago laguntzen duen.

San Joan Txiki eguna



Festa onak pasa!

DILASKOTEGIA URDAITEGIA

SALTAMENDI

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 86 46
BEASAIN (etxekoa) 16 14 37

GALDOS

- ➔ Egurrezko zoruak
- ➔ Moketak
- ➔ Sintasolak
- ➔ Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89
BEASAIN

JULIAN MUJICA

Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Igartza Oleta, 10 ☎ 88 01 96
BEASAIN

SEGURA



Marmitta hartuta esne bila, Antonkalenera, azken kale-baserriko atarira etortzen zen jendea.

Azken 15 urte hauetan, dena, taberna eta gainerako zerbitzuen artean, 20tik gora dira herrian itxi diren establezimenduak. Zentro komertzial handiek aukera gehiago eskaintzen badute ere, herriari, zerbitzu gutxiago izatea, bertakoei bizibidea ateratzeko posibilitateak murriztea eta bizitasuna galtzea suposatzen dio.

Urte hasieran, herriko azken kale-baserria den Antonkalenen, bertako behi-esnea banatzeari utzi zioten. Uda honetan, berriz, Goiko Panaderian ogia saltzeari, Galarzanean patata eta pentsua partitzeari eta Don Migeleanean, arrautza salmentak jarraituko duen arren, pentsu banaketari utzi diote.



Garazi Goia saritua

Prosa sailean eta "A" mailan (17-18 urte), Garazi Goia izan da XIII. Urruzuno literatur lehiaketaren irabazlea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako sari-keta, "Amodioaren pasioa" izenburua duen lanarekin irabazi du. Bertan, *senarra eta maitalearen artean duen pasiozko amodio historia* kontatzen du emakume batek. Gara-zi 10 eguneko bidaian aterako da gainerako irabazleekin batera, Frantzia, Suitza, Austria eta Txekiarantz. Banatu diren 20 sariekin liburua argitaratuko du sailak, irabazleei zein parte hartu duten ikastetxeei banatzeko.

Errehabilitazio plana

Herriko hirigune historikoaren errehabilitazio plan berezia martxan jartzeko zenbait pauso ematen ari da Udala. Uda honetan, sekula egin gabeko herri osoaren mapa topografikoa egiten ari dira. Kaskokoa, 1988koa, zahartua ere bazegoen. Irailean, berriz, aditu talde bat hiriguneko etxeetatik pasako da, eraikuntzen egoera eta egiturari buruzko datuak jaso eta bertakoei galderaren batzuk eginez, kasko historikoaren ordenamendurako modelo bat egiten saiatzeko.

Ehiza

Irailaren 8an, goizeko 10:30ean egingo da Segurako Udaletxean urteroko ehiz postuen subasta. Enkantetik kanpo gelditu diren postuen zozketa abuztuaren 30ean egin zen. Bertan, herritarrei Apotako 13 eta 15, Larrebilgo 14 eta 18, Ultzamako 3 eta 5, Iturgaingo 8, Agiñarango 5, Peazuluetak 5, Portugañako 3 eta Leotarango 3 tokatu zitzaizkien. Postu hauek irailaren 3an zozke-

tatu ziren bikoteka herriko ehiztarien artean. Iazkoan, 140 ehiztari herritar aurkeztu ziren bertara.

Aitzol eta Felix etxean

Broad Peak (8.047 m) igo-tzeko asmotan Pakistan aldean 2 hilabete pasa ondoren, orain 15 egun ailegatu ziren herrira Aitzol Telleria eta Felix Goiburua. Uztailaren 11n oinarritzako kanpamendura (4.900 m) iritsita, hilabete pasa zuten bertan. 6 lehen egunak onak izan zituzten baina ilargi aldaketarekin, ilbeheran, 24 egun egin zizkieten txarrak. Bertakoek montzoia aurreratu zela omen zioten. Tarte horretan hainbat saio egin zituzten, 7.500 metrora ere iritsiz. Baina, eguraldi txarrak eta gailurra lortu ondoren 3 korearrek izandako heriotzak atzera eginarazi zieten abuztuaren 10eko azken ahalegi-naren ondoren.

Pelota

Abuztuko pelota torneoetan, Martin Alustizak A. Elkoroekin Zarauzkoa eta R. Belokirekin Donostiakoa irabazi ditu. Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberrriak Trinidadeko torneoak irabazi zuten aste nagusian. Usurbilgoan finala jokatu dute irailaren 7an, 10:30ean Garate-Larrañagaren aurka, pasa den zapatuan Erostarbe-Idiakez 10ean utzi ondoren.

Bazkideak behar futbolerako

Herriko eta inguruko gazteekin egiten duten lana kontutan hartuz, herritarrei bere aportazioa eskatu nahi diete zuzendaritzakoek, Segura Futbol Taldeko bazkide egin daitezen animatuz. Bakarkako abonua: 4000 pta., bikotekak: 6000 pta. eta gaztetxoak

1000 pta. Denboraldiari dagokionez, Igo mailako erregionalek irailaren 7an, 16:30ean hasiko dute liga, "Anaitasuna"ren kontra, etxean. Jubenilek, 14an, 16:30ean "Hamaikak bat" en aurka, etxean. Kadeteek irailaren 22an eta infantilek 29an hasiko dute berea. Edozein mailatan jokatzeko interesaturik daudenak entrenamenduetara ager daitezke.

Labur-labur

● Abuztuaren 31n mendiz joanda, irailaren lehen autobusez etorri ziren Arantzazuko peregrinaziotik zenbait herritar.

● Irailaren lehen, Aizkoeta Erdiko zelaian egin zen XIV. Usakume tiraketan, herritar onenaren saria Joxe Krux Intxaustik eraman zuen; Txoritegi Elkarteko onenarena, berriz, Imanol Agirrek. Bakoitzak 3na uso bota zituen.

● Arantzazu barriokoek, plazatik hasita bolalekurainokoek, irailaren 14an, bertan bizi, lan egin edo jabetzaren bat dutenen arteko auzo afaria egingo dute portikopean, 20:00etan auzoan hildakoen alde emango den meza- ren ondoren.

● Lourdesera egingo den egunpasa, irailaren 15ean izango da aurten. Jarraian egiten den 6garrena da eta goizeko 6:30ean irtenda gaueko 11:00ak aldera bueltatuko dira. Informazio gehiago Jermanenean, 801003 telefonoan.

● Ordozgoitiarrek irailaren 15ean egingo dute euren urteroko bazkaria. 13:00ean meza izango dute San Sebastianen eta ondoren bazkaria Zegamako Ostaturan.

Joseba Telleria

LAZKAO

Konponketa lanak Udaletxean



Dagoeneko herritar gehienok jakingo duzue, aurrera doaz Udaletxean egiten ari diren konponketa lanak. Udaletxeko zati bat kaltetua baitzegoen. Nahiz eta joan den astean bota zuten kalteturik zegoen etxe zatia, lan hauek abuztuaren lehen egunetan hasi ziren eta egin zen lehen gauza Udaletxearen alde ona kaltetua zegoenetik bereiztea izan zen. Izan ere, suntsitua izan den zatia porlanez eta adreiluz osatua zegoen, eta porlan honek gaitza zuen

nonbait.

Konponketa lanek bere horretan dira beraz, baina, hala ere ez da aldaketa handirik nabaritu Udaletxearen kanpoko itxuran lanak amaitzen direnean. Denen den, berrikuntzen artean soto bat eta arku bat gehiago egiteko asmoa ere bada. Kanpoko egitura 5 hilabete barru amaitua egotea espero da.

Aldaketa nagusiak barrukaldean izango ditugu. Bertan, lokal berriak egingo di-

ra kultura eta aisialdiari zuzenduak. Honela, lehenengo solairuan liburutegi zabal bat egiteko asmoa dago. Kultura batzordeko bilerak ere lokal honetan egingo dira. Eskola-tailer bat egiteko asmoa era ba da.

Anbulatorioak, berriz, dagoen tokian jarraituko du oraingoz, irtenbide egoki bat aurkitzen den bitartean.

Bi gazte Himalayan

Halaxe da. Motxilak betetuta zituztelarik abiatu ziren Arkaitz Mendia eta Andoni Barandiaran lazkaotar gazteak India aldera, 7.075 metro inguru dituen Satopanth mendia igotzeko prest. Abuztuaren 19an irten ziren etxetik eta irailaren bukaeran itzultzekoak dira. San Miel egunerako etxean izango dira beraz. Ez dira bakarrik joan hala ere, beste lau lagun izango baitituzte taldekide, hiru goierriar eta elgoibartar bat.

Etor sasoi betean

Etor Mendia herriko kirolaria abuztuaren 10ean Dani-markan burututako triatloi proba gogorrean, Ironman deritzanean, izan zen. Ez da ez txantxetako lortu zuen marka. 3 kilometro 800 metro igeri, 180 bizikletaz eta maratoi bat korrika egin ondoren 17. postua lortu zuen, parte hartu zuten 300 lagun artean.

Nahiz eta marathoian une txar txiki bat igaro, primeran aritu zen orohar, egin zuen postu handiak halaxe adierazten du. Etorrez gain Aitor Eskalante (19. postuan) eta Igor Mertxan (50. postuan) beasaindarrak ere izan ziren proba honetan. Taldekako sailkapenean goierriarrek laugarren postua lortu zuten, txapelketan parte hartu zuten 22 taldeen artean.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

ZEGAMA

Herri Eskola berriak badu izena: Aitxuri

San Bartolome jaiak bikain aprobetxatu ondoren, iraila etorri zaigu eta nola ez, Herri Eskola berriari izena jartzeko garai egokia.

Hau dela eta, joan den abuztuaren 29an, Kultur Etxeko batzordea, Guraso Elkarteko bi ordezkari eta bi irakasle elkartu ziren, herritarrei luzatutako lehiaketa-galdeketa bildutako izen multzoa aztertu eta erabaki bat hartzeko asmoz.

Besteak beste, 32ren bat izen zenbatu baziren ere (gehienak mendienak), az-



ken hautapenean 3 izen zuden hautagai: Aitxuri, Ake-tegi eta Elorri. Azkenean Aitxuri Herri Eskola izan zen aukeratua. Esan Aizko-

ri mendikatean dagoen gailurrik garaiena dela eta beraz Euskal Autonomia Elkarteko garaiena.

Aitxuri Herri Eskola proposatutako fitxak 367 zenbakia du. Beraz, zenbaki honen jabea, dagokion saria jaso dezan, ager bedi Udaletxera fitxaren beste zatia-rekin. Saria, afari edo bazkari eder bat Udal Ostatuan.


EPA

Aurten ere, Helduen Hezikuntza Iraunkorrerako matrikula irekita dago, beraz aurreko urteetako ikasleek nahiz berriek beraien izena Udaletxean eman behar dute irailaren 15a aurretik.

Edurne Albizu

ATAUN

Aitor Auzmendi Alkateari elkarrizketa



G.- Ez omen da urtebete-an ezer egin.

E.- Udaletxeko berri duen edonork badaki hori ez dela horrela. Gauzak egitea 100 milioitik gorako obrak egitea bada, herri honek ezin du. Beste instituzio batzuen laguntza behar du. Adibidez, Astigarra eta Arrondo-ko espaloiak eta San Gregorio eta Iztatorre erreka bide-raketak egiteko laguntzak lortu nahian ari gara.

G.- Zer egin da?

E.- Ezin da bi hitzetan esan. Ataungo etorkizuna prestatzeko plan bat egiten ari gara. Udala berrantolatzen ari gara: 2 langile kontratatu ditugu. Udal egoitzen garbiketa, Atsedeen Toki eta Auzoeta Kiroldegia-aren ustiape-na lehiaketa publiko bidez adjudikatu dira. Udala informatizatu eta kotxe bat erosi da. Haizti errekan basoa ateratzeko izendatzea egin da eta Amuñain inguruan alaketak egin dira. Arau Subsidiarioak aldatu egin dira hainbat asmo bideratze arren. San Gregorion eta Iztatorren erreka bideratzeko proiektua egin, konbenio bat sinatu eta lurrak erosi dira. Ur-sarea konpondu. Industrialdea eta ur-lantegia bultzatu dira. Baserri bideak hormigoitzen jarraitzen dugu eta beste batzuk konpondu. Nitxo berriak

egiten hasi gara. San Gregorio-ko frontoia amaitu eta arautu zen. Kultur eta kirol mailan eskaintza zabala. Gimnasio bat eratu da Auzoetan. Gizarte eta ongizate zerbitzuak indartu egin dira. Bulego berria ireki da gizarte-laguntzaile eta Bake-Epailearentzat. Herritarrak jakinaren gainean edukitzeko 'Udalberri' aldizkaria eta udal-agiriak kaleratu ditugu...

G.- Herritar guztien Alkate?

E.- Zalantzarik gabe.

G.- HBri botoa eman zioten 492 ataundarrena ere bai?

E.- Bai horiena eta bai Alkatezarako babesa eman zidan EA eta Herrigintzako 618rena ere. Eta baita botoa eman gabe gelditu ziren 316rena ere. Ez da niretzat lehenengo eta bigarren mailako ataundarrik.

G.- Zenbat herri Ataunen?

E.- Nik beti bakarra ikusi dut. Nortasun handiko 3 auzo ditu eta hiruretan oinarritzko azpiegiturak jarri beharrak, gastuak hirukoiztu egiten dizkigu askotan. Horren ondorioz, antzeko beste herrie-kin konparatuz, atzeratuta goazela dirudi askotan.

G.- Herria hustu eta hustu.

E.- Ahaleginak egiten ari gara, herrian bizi-baldintza egokiak sortuz. Baina heriotze-indizea handia eta jaiotze-tasa txikia daukagu. Ezer gutxi egin dezake hor Udalak.

G.- Ume bakoitzeko dirua emango?

E.- Ez dut uste arazo honen irtenbidea Udalak eman ditzakeen diru-laguntzen baitan dagoenik.

G.- Zergak gora?

E.- Bizitza-maila gora doan neurrian, zergak ere gaurkottu beste erremediorik ez daukagu. Helburua zera da: zerbitzu egokiak ematea eta zerbitzu bakoitza horretarako jasotzen den zerga bidez ordaintzea.

G.- Babes ofizialeko etxeak noiz?

E.- Udalak konpromiso guztiak bete ditu. Jaurlaritzak lehiaketa publikoa egin du eta 5 promotra aurkeztu dira. Orain adjudikatzea falta da. Gauzak ondo udazkenean obrak hasita izango dira. Etxebizitzak merketzeko diru-laguntza bila ibili gara eta lortu dugu azkenean.

G.- Animarik ez Plenoetara.

E.- Baina, herritar ugari dabil Udal Batzorde eta antzeko taldeetan lanean. Gehia-

go balira hobe!, dudarik ez. Baina jende asko ari da ezkutuko eta isilpeko lanean. Eskerrik asko denei!

G.- Herriko ETako presoak bixitatu?

E.- Elkarrizketak eskatuta ditut. Laster beraiekin egotea espero dut. Politikoki ezberdintasun handiak ditugun arren, herritar diren momentutik, giza-mailan, gure babesa izango dute.

G.- Zer egingo seguru, ondorengo urtebetean?

E.- Ez dut gogoko promesak egitea, baina orainarteko lan erritmoan jarraitzen badugu, zerrenda luzea izango da. Etxebizitzak hasita izango dira, Aiako aterpea, herri bide zaharra, herri basoen ustiaketa plan berria, etabar luze bat.

Jon Aizpurua

Ibilaldi neurtua Ataunen

Irailaren 8rako antolatu dute Oargi Troskaeta K.E. eta Ataun Kirol Elkarteak, Udalaren babesean, Ibilaldi Neurtua. Aralarko Parke Naturalarekin zerikusia izango du aurtengo edizio honen. Eta Ataungo lekuri politenak eta azpimarragarrienak parte hartzaile guztiei eskaintzea da asmoa.

22 kilometro ditu ibilbideak eta puntu hauek ikusiko dira: Aiako auzoa, Sastarriko koba, Ubeiko leizea, Lareoko urtegia, Baiarreteko trikuharria, Argarbi eta Oidui ingurua, Aiaturrieta eta Arbilleta etxea.



*San Gregorioko festak ospatu berriak dira. Argazkia, koadrilen egunean gazteak etxetik atera berri-
tan eginikoa da. Eguna ez zuten hain txuri eta txukun bukatu.*

ZERAIN

Datorren astean, Kultur Astea izango dugunez, hainbat hitzaldi entzuteko aukera izango dugu. Hitzaldiekin hasi eta jubilatuen egunarekin emango zaio amaiera. Hitzaldi guztiak Kultur Etxean izango dira, iluntzeko 8.30etan.

Irailak 9, astelehena:

Gaia: Euskal mitologia. Hizlaria: Emeterio Sorazu.

Irailak 10, asteartea:

Gaia: Laborantza edo Nekazaritza Iparraldean. Hizlaria: Mixel Berhocoigoin.

Irailak 11, asteazkena:

Gaia: Drogomenpekotasuna. Hizlaria: Jose Mari Ize-ta.

Irailak 12, osteguna:

Gaia: Euskaldunak Ipar Ameriketara. Hizlaria: Jose-ba Etxarri (kazetaria eta idazlea).

Irailak 13, ostirala:

Diapositiba emanaldia Jose-ba Iribarren eskutik. Gaia: Lera-txakurrak.

Irailak 14 larunbata:

Marraski lehiaketa arratsaldeko 4etan. Sari banaketa 6etan izango da. Sariak banatu ondoren buruhandiak irtingo dira herriko plazan.

Gaueko 10.30etan, Pelotalekuan, bertso jaialdia izango da ondorengo bertsolariarekin: Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal eta Jon Sarasua. Gai-jartzailea Joxepa Madariaga izango da. Ondoren dantzaldia, goizalderarte, Maixa eta Itziar taldearekin.

Irailak 14, igandea, jubilatuen eguna.

Eguerdiko 12.30etan, Maza Nagusia izango da Zegamako Orkatz abesbatzarekin. Ondoren Etxeberria eta Garmendia bertsolariak.

Eguerdiko ordubietan jubilatuen bazkaria izango da Ostatu jatetxean. Bazkal ondorena Etxeberria eta Garmendia bertsolariak eta Intxausti anai-arrebak eta Unai trikitilariak alaituko dute.

Andoitz Telleria

IDIAZABAL

Trikuharriak berreskuratzeko auzolandegia

Auzolandegietan, uda lanean eta jende berria ezagutzuz pasatzea erabakitzen duten gazteak izan ditugu herrian abuztuko azkeneko astean. Kutxa Fundazioak eta Aranzadi elkarteak elkarlanean antolatuta Idiazabalen dauden hainbat trikuharri eta historiaurreko monumentu megalitiko berreskuratu dituzte.

22-25 urte bitarteko gazteak aritu dira lanean astebetez. Goizez lan egin eta arratsalde bestea hainbat iharduera egin dituzte eta Gipuzkoako bazterrak ezagutzen ere aritu dira. Lana herriko lurretan egin badute ere, San Adriango atzerpean izan du egoitza auzolandegiak.

Auzolanean ondoko eraikuntza eta giza aztarnak berreskuratu dituzte: Balenkaleku, Napalata, Praalata, Unanibi, Urrezulko Armurrea eta Atxu izeneko trikuharriak. Hauetako batzuk duela 16 urte ezarritako egurrezko mugarriak badituzte ere, orain seinalizazio berria jarri die, hormigoizko zutabeak eta altzairuzko plakak jarri.

Errealeko jokalariek

Azken urteotako ohiturari jarraituz Idiazabalgo 'Errealaren lagunak' peñako ki-deek urteroko afaria egin zuten abuztuaren bukaeran. Afari horretan Errealeko

jokalaria bati saria ematen diote denboraldian egindako lanagatik. Aurten Luis Perez aurrelariak jaso du oroigarria.

Luis Perezekin batera, Idiakez eta Lopez Ufarte taldeko arduradunetako bat izan ziren herrian. Guztira 40 bat lagun bildu ziren afarian.

Beste saritu bat ere izan zen, Idiazabalgo jubentil taldeko jokalaria onenari emandako saria Patxik jaso zuen.

Errealeko Lagunak peñak aurtengo denboraldiko Errealaren partidurak ikusteko irteera pare bat prestatzen ari da.

Eguneroko martxa hartzen

Abuztuko etenaldiaren ondotik herria eguneroko martxara itzultzen ari da. Liburutegia hilaren 2an zabaldu zuten eta Kultur Etxea irailaren 9tik aurrera egongo da zabalik. Udan irekita egon den igerilekua, berriz, irailaren 15ean itxi-ko dute.

Euskal Herriko gazta txapelketaren antolaketa ere aurrera doa, irailaren 6an, ostiralean, egingo da txapelketa antolatzeko hurrengo bilera.

Xabier Urteaga



88 55 00 ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

ORDIZIA

Berriz lanean hasteko garaia



Eguzki taberna itxearakin batera galduko da San Ferminetako zokketa.

Aurreko hila nahiko lasaia izan da gure herrian, nahiz eta joaneko urteetan baina jende gehiagok bertan geratzea erabaki. Aldatu den gauza bakarrenetarikoa, beraz, OKEk antolatutako "Kifi" torneo litzateke. Fermin Gonzalez "Kifi" berriemaile ohiak Ordizia eta batez ere kirolaren alde egin zuen lana eskertu nahian, lau taldeen arteko futbol txapelketa jokatu da. Nahiko jende biltzea lortu zuela esan liteke, nahiz eta urdinek ez zuten finalera heltzerik lortu.

Eta guzti honez gain, hor ditugu "euskal festak", gehigarri berezian dagoeneko ikusiko zenuen bezela.

San Fermin zokketa

Hain famatua den San Fermin zokketa desagertzeko zorian dago Eguzki taberna traspasoan jarri dutenetik. Orain 70 urtetik gora hasi zen zokketa berezi hau egiten. Agustin Garmendia arduratu zen aurrena, Domingo Tolosa ondoren eta azken 29 urtetan Julio Goitia aritu da, zenbait berrikuntza ere sartu zituelarik azken honek.

Zokketa honek duen be-

reizgarriak nagusia zera da, irabazien %10a San Jose Zaharren egoitzara zuzenduta dagoela eta kontutuan izanik aurtengoan 93.000 zenbaki inguru saldu direla, atera kontuak, bakoitza 25 pezetatan... ez dago batere gaizki. Boleto gehien saldu ziren urtea 1993a izan zen, ia 100.000 saldu baitzituzten.

Hain sona handiko zokketaren desagertzea benetako izango dela dirudi gainera, Julio Goitiak Urdaneta kalean dagoen Eguzki taberna traspasoan jarri baitu. Berak adierazi duenez, ez omen dago Ordizian beste tabernarik honekin jarraitu nahi duenik.

Ikastetxeak DBH-aren barne

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza martxan jarri denetik herriko ikastetxeak horretara moldatu beharrean izan dira. Hain zuzen ere, Ordizian, 2 eta 18 urte bitarteko gazteek bi ikastetxeren artean aukeratu dezakete, Jakintza Ikastola eta Urdaneta-Oianguren artean. Goierrik lehengoarekin jarraituko du eta Milagrosa ikastetxeak 12 urte bitartekoak heziko ditu, ondoren

hauek eskolaz aldatu behariko dutelarik.

OTE-K garaipenak

Ordiziako Txirrindulari Elkarte denboraldia erabat borobiltzen ari da. Behe mailako txirrindularitza sustatzea helburu duen talde hau ezin hobeto betetzen ari da bere lana, izan ere, emaitza onak lortzeaz gain datorren denboraldirako behe mailako maila guztietan taldeak izateko ekinean dabiltza.

Denboraldia garaipenez josita dutela esan liteke, bai talde mailan eta baita indibidualki ere. Taldeka bederatziz garaipen kontu daitezke, Gipuzkoako erlojuz kontrako txapelketa nabarmenduz, hirugarrenez segidan irabazi baitute. Indibidualki aipatu Zugaitz Ayuso gaztea egiten ari den progresioa nabaria dela eta itxaropen guztiak jarriak daukela beragan.

Zumaia, Tafalla, Ausejo, Telleriarte eta Urdian OTEkoek bizi duten momentu onaren lekuko izan dira. Dioni Galparsorok Zumaian aurrena eta Tafallan ondoren irabaztea lortu zuen. Errioxan, Ausejon hain zuzen, Iurgi Auzmendik berdina egin zuen, Txomin Bartolomek Telleriarten eta azkenik Xabi Sarasolak Urdiainen gainontzeko guztien aurretik sartzea lortu zuen. Garaipen hauei aurretik Xabik, Dionik eta Txominek lortutako beste hiru gehitu behar zaizkie. Guzti honek ez du zera adierazten besterik, Ordiziako Txirrindulari Elkarteak apustu indartsua egin zuela behe mailako txirrindularitza sendotzeko,

eta fruituak begibistakoak direla.

Gonzalez laugarren

Jose Mari Gonzalez, bere garaian txirrindulari profesionala izan zenak ezin izan zuen podiuma lortu Laussanen (Suitza) jokatu zen Europako Txapelketan. Berau bihotz edo biriketako transplantatuz dago. 35 txirrindularik hartu zutela partee.

Ez da lehenengo aldia Gonzalezek honelako proba batean parte hartzen duena, iaz ere hor ibili baitzen, Manchesteren hain zuzen. Profesional boladan 140 garaipen lortzera iritsi zen, 35 urterekin erretiratu behar izan zueneraino. Orain, kirol honengatik sentitzen duena kontutan izanda, txirrindu gaine jarraitzeko asmoa nabari zaio, eta are gahiago Suitzan lortutako laugarren postu horren ondoren.

"Ordizia Hiria" saria

Astez-aste jokatzen aritu ondoren abuztuan ezagutu ziren "Ordiziako Hiria" sariaren irabazleak. Berau Oiangui Pilota Elkarteak antolatu zuen eta pala motzean aritu ziren bakarrik. Beti Alai pilotalekura norgehiagokak ikustera inguratu zen jende kopurua ikusita, gustora geratu dira antolatzaileak. Palistek erakutsitako maila ere ez zen makala izan eta azkenean Lakalle ordiziarra eta Valerak osatutako bikotea izan zen garai-le. Finalean 40-36 nagusitu zitzairen Txikuri eta Ruesgasi.

Aitor Calvillo

GABIRIA

San Lorentzo basiliza berreskuratua



San Lorentzo basilizaren inaugurazioa.

Noiz eraiki ziren zehatz-mehatz ez badakigu ere, gauza jakina da 1593. urtea baino lehen Gabirian bazirela lau basiliza edo ermita. Baseliza horietako bat San Lorentzo deiturikoa zen, hain zuzen ere, Ugaran auzoan kokatua zegoena. Beste hiru basilizak San Migel, San Esteban eta Santa Marina ziren.

Ermita horien historiari helduz, 1808. urtean Bonaparteren armadek ermita horiei gehienei eraso eta suntsitu egin zituzten, Santa Marina bakarririk iraun zuen.

Orain dela bederatzirentzat urte auzo horretan

“Korta” jatetxea eraiki zenean, auzotarrak San Lorentzo egunean erromeria antolatzen hasi ziren (aspaldiko ohitura zahar hura berreskuratu nahirik, liburuak aipatzen dutenez orain dela mende batzuk ere erromeria ederrak antolatzen omen ziren, askotan liskar eta guzti) eta ermita berreraikitzeke asmoa orain dela hiruzpalau urte sortu bazen ere, aurten serioxeago heldu ideia horri eta basiliza dotorea eraiki dute auzotarrek garai batean zegoen leku berberean.

Horrela bada, ermita berria ikusi nahi duenak “Korta” jatetxe inguruko zelaira inguratu besterik ez du.

Abuztuaren 9an ireki zen berriro Ostatua

Martxoaren 31n itxi zen herriko ostatua ordura arte eduki zutenek uztea erabaki zutelako. Horren ondorioz, Gabiriako Udalak enkantean atera zuen eta Martin Irazustabarrena (zaldibiarra) eta Maribi Dorronsoro (bidaniarra) senar-emazteek hartu dute datozen bost urteetarako.

Itxita egon den hilabete horietan Udalak dexenteko lanak egin ditu bertan, batez ere sukaldean, gaur egun osasun aldetik eskatzen diren baldintza guztiak betetzeko.

Obra horiek ia amaituta zeudenez, abuztuaren 9an erabaki zuten irikitzea eta geroztik festak direla eta abar nahiko lan egin behar izan dute, baina badirudi nahiko gustora ari direla eta ea zorte ona izaten duten datozen bost urteotan.

GOIERRITARRA al-dizkariko irakurleok badakizue, beraz, Gabiriako gaina ikusiz zertxobait hartu nahi izanez gero Ostatua berriro irekita izango duzue guztiok.

Gabino Murua



Ostatua inauguratu zeneko luncha.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxe: **88 90 17**


**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Ruben Zabaleta zegamarra 10 urterekin munduko trialsin txapelkun

Uztailaren 31n Suitzako Zuoz-en Munduko Trialsin Txapelketa irabazi zuen Ruben Zabaletak. Zegamako festetan, abuztuaren 25ean, omenaldia egin zitzaion herrian. Bertan, Udalak plaka bat oparitu zion.

Lehenengo Euskadiko txapelketa irabazi zuen eta hortik Espainikora pasatu zen. Hemen 8 proba dira eta erdiak irabazi zituenen mundialerako sailkatu zen. Mundialean beste, 36 mutikoekin lehiatu zen eta alemaniar batekin 'borroka' izan zuen arren, nahiko erraz irabazi zuen.

Aurten, Zafra (Badajoz), Granada, Murtzia, Gazteiz, Bartzelona eta azkenik Suitzara joan dira konpetizioetara. Honek gastu handiak suposatzen ditu. Txirrinduaren mantenimendua ere garesti ateratzen da. "Eske-rrak laguntzak ditugun. Zegamako Elkartu Nahi elkar-teak asko lagundu digu, Udalak, Larrarte sagardotegiak, Kendu kooperatibak eta beste hainbatek ere laguntzen digu. Suitzarako Rubenen bidaia federazioak ordaindu zuen", dio bere aitak.



Trialsinean, oztopoak txirrinduari gain-ditu behar dira eta hanka lurrean gutxien jartzen duenak irabazten du.

Gurasoen laguntza

Aita beste hainbat zegamar bezala trialeko motorrarekin ibiltzen zen gaztetan. Urtero Donostiara joaten ziren trial indoor ikustera. Semeari hori dena gustatu egin zaio. Txiki-txikitatik ibili izan da bizikletarekin, denak puskatzen zituen. "Berezkoa ekarri du, guk ez diogu ezer erakutsi. Zabaletan hori ikustean animatu eta laguntzea egin dugu", dio amak. Gurasoek jarraitu ezean ezinezkoa da mugitzea, beharrezkoa du laguntza hori.

Egunkaritik enteratu ziren txapelketa bat bazela eta bertan zer egiten zuen pro-

batu eta ikastea pentsatu zuten. Oñatin egin zen proban hirugarren geratu zen. Honek bai Ruben, baita gurasoek ere animatu egin zituen: "Jarraitzea erabaki genuen, lehen probetan, urteak zeramatzatenekin konpetituz 2. eta 3. postuetan geratu zen. Guk ikusten genuen asko ibiltzen zela eta gure planteamendua zen: ibili dedila, hor dabilen bitartean kirola egiten du eta". Aurten ere herriko festetan txirrinduan errepideko proba irabazi du. Gorpilak dituen guztia gustatzen zaio.

Goierri orain arte inork ez du kirol hau egin. "Ea orain piskabat indartzen den. Festetan erreza da exhibizioak montatzea, ez da garesti ateratzen eta polita da ikusteko. Zegaman aurten egin dugun txapelketa bat eta oso ondo atera da. Festetako asteartean ere kiroldegia jendez gainezka egon zen exhibizioa ikusten", dio aitak.

Herriko koska guztiak

Entrenanduak etxe inguruan egiten ditu gehien, baina herri guztian zehar ibiltzen da txirrinduari koskak igo eta jeitsi. Oraingoz jolas

bakarrak egiten du, baina handiagoen mailan gimnasioa eta beste zenbait entrenamendu berezi egiten dituzte. Harrietan (mendian), gutxi entrenatzen du eta harri eta erreka artean diren probetan arazo gehiago izaten ditu. Koska, tubo, enbor, kotxe eta abarren gainean ibiltzeko berriz ez du inongo arazorik.

"Lehen herriko edade-tuek motikoa horrela txirrindurarekin saltoka ikusi izutu egiten ziren. --dio aitak-- Orain herrian probak montatu direnean eta kotxeen gainean saltoka ikusi dituztenean konturatu dira ez dagoela arriskurik. Abiadurarik ez dagoenez, gehienek kolperen bat hartzearena. Gainera ibiltzen dakienak, erori behar denean salto egiten du".

Aitak dioenez, "Aurrera jarraitzeko modua izango du eskolan portatzen bada. Oraingoz ikasketetan ere ez du inongo arazorik". Trialsina indartzen bada posible da horretan jarraitzea. Baina, gaur egun, 16 urterekin motorreko karneta atera eta trialera pasatzen dira. Normalean, hor irtenbide gehiago baitaude, motor etxeek hartzen dituzte piloto bezala. Txirrinduari ez dago bizitza ateratzerik.

Mikel Albisu

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Olaberria Kalea, 6

80 10 66 - 67 22 28 (etxea)

ZEGAMA

* Ogi integralak

* Baserriko ogiak



Zegamako erromesak

Mujika Garitano sendiak utzi digun argazkia, orain dela 65 urte inguru, Zegamatik Arantzazura joandako erromesena da. Gaur egungo Hospederiaren aurrean ateratakoa. Apaiza, On Jose Antonio Arakama zen.

GOIERRITARRA

**Gure inkesta orria
iritsi zaizuenoi, bete
eta lehenbailehen
bidaltzea eskertuko
genizueke.**

Bidali:

**124 Posta Kutxatila
ORDIZIA**

MIRENTXU LIBURUDENDA

Kurtsoa ondo hasteko behar duzun guztia!

LIBURU ETA ESKOLARAKO GAIAK

Nagusia, 1

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 88 14 57

☎ 88 04 55


BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

☎ 88 79 72

**Senpere, 7
BEASAIN**

BEASAINGO IKASTOLA

BEASAINGO IKASTOLA

Ikastetxe-eredu berritzailearekin datorkizu. Euskalduna eta eleanitza. Gurasoen partaidetza areagotzeko eta ikasleei mundua ikastetxera ekartzeko arratsaldeko 5etatik 8etara bitarte ere ekintza ugari eskaintzen ditu:

Guraso-eskola

Hizkuntz eskola

Informatika gela

Liburutegia

Ikasketa-gela


Kirolak euskaraz burutzeko aukera

ZATOZ! Motxila bete eskola-liburu, txandala eta garraioa dohain.

Ez duzu beka eskatu beharrik izango, ezta damutzeko biderik ere!

BULEGOA:

Esteban Lasa 3 ☎ 88 53 12



✓ Oinarrian:
LEHENGOARI EUSTEA



✓ Erdian:
IKASLEA



✓ Helburua:
**ETORKIZUNARI KALITATEZ
ERANTZUTEA**

BEASAINGO IKASTOLA
ETORKIZUNARI KALITATEZ ERANTZUTEKO